

X Musika astea Errenterian
Maiatza 17tik-22ra, 1982an

X Semana musical en Rentería
Del 17 al 22 de mayo de 1982



MYSIKASTE

MYSIKA ASTEAN ERRETERIAN

Maiatza 17tik-22ra, 1982an

SEMANA MYSICAL EN RENERIA

Del 17 al 22 de mayo de 1982

Antolatzaile: Andra Mari Korala
Babeslea: Erreterriako Udaletxea

Diru laguntzaz:

Aurrezki Kutxa Munizipala

Aurrezki Kutxa Probintziala

Angel Iglesias, S.A.

Lan Kide Aurrezki

Bankoa

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

Organiza: Coral Andra Mari

Colabora: Ayuntamiento de Rentería

Patrocinan:

Caja de Ahorros Municipal

Caja de Ahorros Provincial

Angel Iglesias, S.A.


Caja Laboral Popular

Bankoa

Diputación Foral de Guipúzcoa

Departamento de Cultura del

Gobierno Vasco





Tomás de Elduayen
Elduayen
1882-1952



Luis Urteaga
Ordicia
1882-1960

Herri baten bizitzan badira, historian zehar, sail batetan edo bestetan, aurrera pausu haundia eman izan duten gizon eta familiak.

Murgiatarren abizena ospetsua izan zen XVIII mendeko hamarkada zenbaitetan eta XIX mendean bai literatur bai arte sailean, musikagintzan, interpretazioan, historigintzan, pinturan, eta abar. Jatorriz herri desberdineko izanik, Irun, Oiarzun, Tolosa... eta kulturaren goi maila jo dutelarik, MUSIKASTE 82ri egoki iruditu zaio "Murgiatarren belaunaldiei" buruzko lan argigarri bat azaltzea.

Abizenez Murgitar direnen artean, Joakin Tadeo da berezia, musikaren alorrean egin zuen lanak besterengandik berezi eta arras haundi egin bait zuen.

MUSIKASTE 82ek, beren jaiotzaren ehunurteburua ospatzen dela eta gogoan ditu honoko euskal musikagileak:

Elduaiengo Aita Tomas (1882-1953).

Luis Urteaga (Ordizia 1882-1960).

Jose Maria Beobide (Zumaia 1882-1967).

Bonifazio Laskurain (Irura 1882-1979).

Aipatu lehen hiruek musika ugari konposatu zuten abestalde eta organurako, elizgiroko musika batipat, horretaz gain beste melodia folklorikoak, bereziki euskaldunak, landuz.

Azkenengoak, hogeitaz urte luzetan Txistularien Elkarteko "aitonak", guretzat lehen musika instrumendua den txistuarentzat partitura baliagarri garrantzitsurik utzi digu.

EGITARAV OROKORRA

PROGRAMA GENERAL

Astelenez 17:

**Haserako
ospakizuna.**

Lunes 17:

Acto de apertura.

Asteartez 18:

**Euskal musika
organoz.**

Martes 18:

**Musica vasca al
órgano.**

En la historia se ha repetido el caso de familias, que con varios de sus miembros han llenado páginas importantes en la vida de un pueblo.

El apellido Murguía se hizo ilustre en varios decenios del siglo XVIII y todo el siglo XIX en el campo de las letras y de las artes, como compositores de música, intérpretes, historiadores, pintores, etc... Su procedencia diversa, Irún, Oyarzun, Tolosa..., y el alto nivel de su cultura han inducido a MUSIKASTE 82 a presentar un estudio clarificador sobre "Los Murguía en las Bellas Artes".

Entre los miembros del apellido Murguía, Joaquín Tadeo recibe una atención especial, porque su nombre se distinguió sobre los demás en el campo de la música.

MUSIKASTE 82 se adhiere también a la conmemoración del I Centenario del nacimiento de los siguientes compositores vascos:

P. Tomás de Elduayen (Elduayen 1882-1953).

Luis Urteaga (Villafranca de Ordicia 1882-1960).

José M^º Beobide (Zumaya 1882-1967).

Bonifacio Lascurain (Irura 1882-1979).

Los tres primeros compusieron abundante música coral y organística, fundamentalmente religiosa, además de prestar atención a partituras de melodías folklóricas diversas, particularmente vascas.

El último, "aitona" de la Asociación de Txistularis durante 20 años, nos ha legado un importante número de partituras para nuestro primer instrumento musical, el txistu.



José M^º Beobide,
nacido en Zumaya,
1882-1967



Bonifacio Lascurain
Irura
1882 - 1979

Asteazkenez 19:

**Haur kantarien
eguna.**

Ostegunez 20:

Koral eguna.

Ostiralez 21:

Eusko klasikoak.

Larunbatez 22:

**Amaierazko
kontzertua.**

Miércoles 19:

Día coral infantil.

Jueves 20:

Día coral.

Viernes 21:

Clásicos vascos.

Sábado 22:

**Concierto de
clausura.**

Maiatzak 17,
astelehena,
arratsaldeko 8etan.
Udaleko Areto Nagusian.

Lunes, 17 de mayo,
20 horas.

Sala Capitular del
Ayuntamiento.

**MYSIKASTEKO
HASERA
GISAKO
OSPAKIZVNA
ACTO DE
APERTVRA DE
MYSIKASTE**


"Murgiatarrak artedergintzan",
Karmele Arzakren eskutik hitzaldia.

"Murgiatarrak artedergintzan", ponencia a cargo de
Karmele Arzak.

"Joaquín Tadeo de Murguía (1759-1836), compositor y
organista en la catedral de Málaga", María Angeles Mar-
tín Quiñonesren eskutik hitzaldia.

"Joaquín Tadeo de Murguía (1759-1836), compositor y
organista en la catedral de Málaga", ponencia a cargo de
María Angeles Martín Quiñones.

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San
Sebastián.



**JOAKIN TADEO
MURGIA eta
AZKONBIETA**

Murgiatar musikarien artean ospetsuena. Irunen 1759an jaio eta musika lehen pausoak bertan eman eta gero Italiara joan zen kontrapunto istudioak osatzera. Handik itzuli eta gero, 1785 urte inguruan Iruñeako Katedraleko Organista plaza lortzearren azaldu zen baina ez zuen eskuratzerik izan. Halaz ere, 1788an, leihaketa estua egin eta gero, Malagako Katedralekoa lortu zuen. Bertan bizi izan zen 1836an hil zen arte. Bizi zen arte ospetsuago izan zen organista bezala konposatzaile bezala baino. Bere lanik gehienak Malagako Katedraleko Artxibuan bildurik daude. Beste zenbait lan sakabanatu egin da Madrilera Jauregi Errealeko Artxibuan, Arantzazuko Musika Zaharraren bilduman, eta abar.

**JOAQUIN TADEO DE
MURGUIA y
AZCONVIETA**

Es el más destacado de los músicos Murguía. Nació en Irún en 1759 y tras haber hecho los primeros estudios musicales en su propia tierra, pasó a Italia a perfeccionarse en contrapunto. A su regreso y con poco más de 20 años, se presentó hacia 1785 a la plaza de organista de la Catedral de Pamplona, plaza que no alcanzó. Pero en 1788 en reñida oposición obtuvo la misma plaza en la Catedral de Málaga, donde residió hasta su muerte en 1836. En vida Joaquín Tadeo gozó de mayor reputación como organista, que como compositor. El mayor número de sus obras se halla en el Archivo de la Catedral de Málaga. Otras se hallan dispersas en el del Palacio Real de Madrid, en el de Música Antigua de Aránzazu...

**M.^a ANGELES MARTIN
QUINONES**

Malagan jaioa. Batxillerato istudioak egin ondoren Filologia Hispánica-renak egin zituen aipatu hiriko Filosofia eta Letra Fakultatean denbora berean Solfeoa, Biolina eta Pianoa Malagako Musika Goi Kontserbatorioan egiten zituela.

1979an Filosofia eta Letra sailean Lizentziadura lortu zuen eta geroztik musika ikerketa lanari ekin dio bereziki Malagan bizi izan zen XVIII mendeko Joakin Tadeo Murgia musikagile irundarra aztertuz. Konposatzaile honen inguruan, Antonio Martín-Morenoren gidaritzapean, bukatu du Lizentziaduraren Azalpena.

Gaurregun bere istudio musikalak Malagako Goi Kontserbatorioan jarraitzen ditu eta baita Filosofia eta Letra Fakultatekoak ere. Malagako Unibertsitateko "Rafael Mitjana" Musika Katedran laguntzaile da "Música y Universidad" deritzan programa egiten du astero Malagako Radio-Cadena Españolak eskainia.

Na
su
re
Hi
Fil
ci
sir
es
Pi
Su
Ma
Lic
Le
en
mi
fig
de
Ma
Mi
co
rex
Lic
ba
Dr.
En
est
Co
MC
Fa
Es
de
de
pai
pro
Un
ser
Ca

KARMELE ARZAK

Nació en Málaga. Después de sus estudios de Bachillerato realizó los de Filología Hispánica en la Facultad de Filosofía y Letras de dicha ciudad andaluza, simultaneándolos con estudios de Solfeo, Violín y Piano en el Conservatorio Superior de Música de Málaga. En 1979 obtuvo la Licenciatura en Filosofía y Letras, dedicándose desde entonces a la investigación musical, centrándose en la figura del compositor irunés del siglo XVIII, residente en Málaga, Joaquín Tadeo de Murguía. Sobre este compositor ha terminado recientemente su Memoria de Licenciatura que ha realizado bajo la dirección del Profesor Dr. Antonio Martín-Moreno.

En la actualidad continúa sus estudios musicales en el Conservatorio Superior de Música de Málaga y en la Facultad de Filosofía y Letras. Es colaboradora de la Cátedra de Música "Rafael Mitjana" de la Universidad de Málaga, para la que realiza el programa "Música y Universidad", emitido semanalmente por Radio-Cadena Española de Málaga.

Irunen jaioa.

Bere musika pausok Donostiako Kontserbatorioan egin zituen.

Informaziozko Zientzietan Lizentziatua da. Gaur egun komunikabideetan lan egiten du eta Irungo udal aldizkariaren arduratzaile da.

Nacida en Irún.

Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio Municipal de San Sebastián.

Es Licenciada en Ciencias de la Información. Colabora en los medios informativos y confecciona el boletín del Ayuntamiento de Irún.

Maiatzak 18,
asteartea,
arratsaldeko 8etan.

Andra Mari Parrokia
Zaharrean.

Martes, 18 de
mayo, 20 horas.

Iglesia Parroquial de Ntra.
Sra. de la Asunción.

**EYSKAL
MYSIKA
ORGANOZ**

**MYSICA
VASCA AL
ORGANO**

I
Ego sum panis vivus,
a 3 v.m. *Joaquín Tadeo de Murguía*

Suite Davidica:

a) David danza ante el Arca
b) Muerte de David
c) Glorificación de David *José María Beobide*
La Catedral *José María Beobide*
(Violín, violoncello y órgano)

II

Seis preludios para órgano *P. Tomás de Elduayen*

Nere maitia *P. Tomás de Elduayen*
(Soprano, flauta, oboe y órgano)

Selección para órgano *Luis Urteaga*

Final exultante *Luis Urteaga*
(Txistu y órgano)

Soprano: M.^a Luisa Busselo

Soprano: Maite Arruabarrena.

Barítono: José M.^a Arbelaiz.

Violín: M.^a Angeles Echeveste

Violoncello: Enrique Fanlo

Flauta: Teodoro Martínez de Lecea

Oboe: Alfredo Rodríguez

Grupo de Txistus del Conservatorio. Director: José
Ignacio Ansorena

Organo: Esteban Elizondo

Organo: Lorenzo Ondarra

Organo: Juan Urteaga

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.





ELDUAIENGO AITA TOMAS

Tomas Etxeberria Elozegi zen bere deitura izen abizenez. Gipuzkoan, Elduaienen, 1882ko irailaren 9an, eta Donostian hil 1953ko azaroaren 12an.

Nafarroako Lekarozen sartu zen Aita Kaputxino 1901an, eta Ismael Etxazarra irakasle zuela, zeinak gizalegea ongi erakutsi bait zien, Aita Donostiarekin eta Tolosako Aita Nikolasekin armonia eta kontrapunto ikasi zituen, eta oinarri musikala arrigarriaren jabe egin.

Honetaz gain, Aita Tomasek bere literatur afizioa gogoz landu zuen. Klasiko espainolak ongi ezagutzen zituen eta egungo idazleen lanaz jabeturik zegoen. Guzti hau bere nortasunean nabarmentzen da, hizlari bezala benetan atsegin bait zitzaion jende ikasiari. Musikari bezala, berriz, beti aurreko puntan ibili zen.

Gogoak horretara bultzatu zuelarik organorako lan asko egin zuen, batez ere euskal melodia herrikoiak armonizatuz eta organorako egokituz.

Abestiaren saila ugari landu zuen, gehienbat elizarako eginaz, eta gehienetan eskabide zenbaiti erantzunaz eginikoa.

Bere musikaren armonia gardena da, atsegina, eta zenbaitetan politonalitateari ez dio muzin egiten.

Apala zen, apalegia beharbada. Bestek eginikoa jasotzeko prest eta zabalik egon ohi zen, baina berak ezin urratuzko isiltasunean irauten zuen. Hau dela eta, eta Chilen eta Argentinan urteak egin zituela gogoan hartuz, bere lanak bitzea, oraingorik isilean dirauten lanak gehienbat, zail egiten da.

P. TOMAS DE ELDUAYEN

Su nombre civil era Tomás Echeverría Elósegui. Nació en Elduayen (Guipúzcoa) el 9 de setiembre de 1882 y falleció en San Sebastián el 12 de noviembre de 1953.

Ingresó en la Orden Capuchina en el Colegio de Lecároz (Navarra) el año 1901, donde, a la vez que el P. Donostia y el P. Nicolás de Tolosa, estudió armonía y contrapunto con Ismael Echazarra, que imprimió en ellos una educación humana exquisita, además de una base musical excepcional.

El P. Tomás cultivó además una gran afición literaria. Conocía muy bien los clásicos españoles y estaba al día en los escritores modernos. Todo esto se reflejaba en su personalidad, puesto que como orador hacía las delicias de la gente culta y como músico, estuvo siempre en línea de vanguardia.

Por iniciativa suya compuso mucha música para órgano, prestando especial atención al tratamiento organístico de melodías populares vascas.

Tiene abundante producción coral, casi toda religiosa y también casi toda, obedeciendo a encargos.

En su música la armonía es transparente, agradable y, en ocasiones, no teme ir a la politonalidad.

Su modestia era excesiva. Siempre pronto para acoger lo que salía de los demás, para lo suyo era de un silencio impenetrable. Esto, unido a los años que residió en Chile y Argentina, dificulta una recopilación total de sus obras, que permanecen inéditas en su mayor parte.

LUIS URTEAGA ITURRIOZ

Ordizian 1882an jaioa eta Donostian 1960an hila. Bere musika lehen pausoak herriko organista lagun zuela eman zituen. Gero Donostian Rodoreda maisuarekin. 1902an Balmasedara joanik Martin Rodriguez irakasle zuela Kontrapunto eta Fuga ikasi zituen. Berastegiko organista plaza irabazi zuen 1904ean, eta handik Zumaira joan zen 1905ean. Donostiako San Bizenteko organista eta Musika Bandaren zuzendari bezala 1920an. Geroago Udal Kontserbatorioko irakasle ikusten dugu, lkasle jakintsu askoren gidari izan da, oroitzen oinez gogoan dutelarik.

Musikagile bezala on haundia egin zion musika erlijiosoari, bai koral bai organo sailean. Aldizkari musikalki batetaz baliatuz berari bidal zezaioketen musika oro armonizatzeke eskaini zuen bere burua, eta kontu ezin ahalako enkargu jaso zuen. Horregatik da hain zaila bere lan guztiak, pentsa ere ezin den lekuetan sakabanatua, ezagutzea.

Melodi herrikoi asko armonizatu zuen, batez ere euskaldunak, eta hiru txistuko banda klasikorentzat partitura asko konposatu zuen. Txistularien Elkarteko lehendakari izan zen 1955 eta 1956an, bertako Ohorezko Kide izendatu zutelarik. Donostia Hiriko Zilar Dominu jaso zuen eta baita Alfonso Jakintsuaren enkomienda ere.

LUIS URTEAGA ITURRIOZ

Nació en Villafranca de Ordicia en 1882 y murió en San Sebastián en 1960. Hizo sus primeros estudios musicales con el organista de su pueblo natal. Después en San Sebastián con el maestro Rodoreda y en 1902 se trasladó a Valmaseda, donde estudió Contrapunto y Fuga con Martín Rodríguez. En 1904 ganó por oposición la plaza de organista en Berástegui, de donde pasó a Zumaya en 1905 y de aquí en 1920 a San Sebastián, como organista de la Parroquia de San Vicente y director de la Banda de Música. Más tarde perteneció al claustro de profesores del Conservatorio Municipal y por sus clases han desfilado un gran número de alumnos aventajados, que guardan de él un gran recuerdo.

Como compositor, hizo un gran servicio a la música religiosa, tanto coral, como orgánica. A través de una revista musical se ofreció a armonizar todas las melodías que le fueron enviadas, razón por la que recibió un sinfín de encargos, lo que hace muy difícil la catalogación de sus obras, dispersas por lugares insospechados.

También armonizó muchas melodías populares, especialmente vascas, y compuso muchas partituras para la banda clásica de tres txistus. En el bienio 1955-1956 fue Presidente de la Asociación de Txistularis, que le nombró Socio de Honor. Fue Medalla de Plata de la Ciudad de San Sebastián y recibió la encomienda de Alfonso el Sabio.

**JOSE M.^a BEOBIDE eta
GOIBURU**

Zumaian jaio zen 1882 urteko azaroaren 25ean, eta Burgosen hil 1967ko martxoaren batetan. Bere musika ikas saioak parrokiako organista zen Antonio Truebaren gidaritzapean hasi zituen bere sorterrian. Iruñean Samaniegorekin jarraitu zituen eta gero Madriren Kontserbatorioan.

Hemezortzi urte zituen jesulagunek Quitoko Ikastetxera irakasle bezala eramán zutenean. Ecuadorreko hiriburu honetan Musika Kontserbatorio Nazionaleko irakasle izan zen hasi 1902 urtetik eta 1966 urtera bitarte. Gero New Yorkera joan zen eta gero bere lurraldera itzuli musika irakasle bezala Barakaldon lan eginaz eta gero Alfonso XII. Ikastetxe Errealean irakasle jarraituz. Burgosen, hemen ezkondu zen, kapilla maisu eta Merced Ikastetxeko organista plaza izan zituen.

1930an, Iruñean Magisterio Eskolako musika katedra irabazi zuen oposizioz eta handik hamar urtetara Iruñeako Musika Akademian irakaslegoaren kideko egiten dute. 1957an "Pablo Sarasate" Kontserbatorioa izatera aldatu zenean bertako zuzendari ordeko izendatu zuten.

Musika irakaskuntzaz gain musikagintzari ere ekin zion, batez ere erlijiozko musika sailean, bai elkarte koralezat (gogoan har bedi "Dulce Madre, Virgen Pura" abesti herrikoiena) bai organoarentzat: Intermedio, Suite Davidica, eta abar. Prestuki armonizatu zituen Burgosko, Salamancako, eta batez ere Euskal Herriko abestiak.

Musika lirikoa ere sortu zuen "Los baños de Argel", "La muñeca de China", "Miniatura mariana", "Vieses", "La batelera", "El último cartucho" zarzuelak adibidez.

Na
no
en
19
mu
co
de
en
y
Co
A
lle
Co
do
en
de
19
Yo
tie
prt
Ba
Col
Esc
cas
ma
del

JOSE M.º BEOBIDE y GOIBURU

Nació en Zumaya el 25 de noviembre de 1882 y murió en Burgos el 1 de marzo de 1967. Inició sus estudios musicales en su villa natal con Antonio Trueba, organista de la parroquia. Los continuó en Pamplona con Samaniego y en Madrid en el Conservatorio.

A los 18 años los jesuitas le llevaron como profesor al Colegio de Quito (Ecuador), donde además fue profesor en el Conservatorio Nacional de Música desde 1902 a 1906. Luego pasó a Nueva York y de aquí regresó a su tierra, ejerciendo el profesorado de música en Baracaldo, luego en el Real Colegio de Alfonso XII de El Escorial. En Burgos, donde se casó, ocupó las plazas de maestro de capilla y organista del Colegio de la Merced. En

1930 ganó por oposición la cátedra de música de la Escuela Normal de Magisterio en Pamplona y diez años después ingresó en el claustro de profesores de la Academia de Música Pamplonesa, que al ser convertida en 1957 en Conservatorio "Pablo Sarasate", lo nombró subdirector.

Además de esta entrega a las tareas pedagógicas, destacó como gran compositor, particularmente de música religiosa, tanto para agrupaciones corales, (recuérdese "Dulce Madre, Virgen pura", su obra más popular), como para órgano: Intermedio, Suite Davidica, etc... También armonizó con elegancia melodías populares burgalesas, salmantinas y, sobre todo, vascas.

También compuso música lírica, como las zarzuelas "Los baños de Argel", "La muñeca de China", "Miniatura mariana", "Vieses", "La batelera", "El último cartucho"...

Maiatzak 19,
asteazkena,
arratsaldeko 8etan.

Aita Kaputxinoen Elizan.

Miércoles, 19 de
mayo, 20 horas.

Iglesia de PP. Capuchinos.

**HAYR
KANTARIEN
EGYNA
DIA CORAL
INFANTIL**

Dos romances populares:

- a) Carmina la Virgen pura
b) ¡Ay! Que en esta tierra *Luis Urteaga*

Assumpta est Maria *Luis Urteaga*

La molinera *Luis Urteaga*

Iru eusko kanta:

- a) Madalen busturingo
b) Aurtxo txikia
c) Alpagatak urratuta *Luis Urteaga*

Erresiñula - Tunkurrun *Luis Urteaga*

II

Jesu dulcis memoria *P. Tomás de Elduayen*

Mañanita de diciembre *P. Tomás de Elduayen*

La Virgen esperando la Navidad *P. Tomás de Elduayen*

Tres canciones populares:

- a) Al lado de mi cabaña
b) Canción de carro de Torrelobatón
c) Romance del Conde Olinos *José M^o Beobide*

Goiko mendian *José M^o Beobide*

Dulce Madre, Virgen pura *José M^o Beobide*

Atzo tun tun *José M^o Beobide*

Iruñeako "Loyola" Eskolania. Zuzendaria: Xabier Sagüés.

San Fermin Koroa (Zizur txiki). Zuzendaria: Fermin Iriarte.

Errenteriako Orereta Ikastolako Koroa. Zuzendaria:
Jon Bagüés.

Lekeitioko Itsas Soinua Koroa. Zuzendaria: Gorka Sierra.

Basauriko Soinu bidea Koroa. Zuzendaria:
Amaia Zarandona.

Donostiako "Escolanía del Corazón de María".
Zuzendaria: Antonio Sierra.

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.





SOINU BIDEA

Basauri Ikastetxeko ikasleen artean aukeratutako 75 abotsek osatzen duten taldea da. Orff eta Word metodoari jarraiki hasi zen musika saioetan 1974an.

Begoñako Aste Koralean, Basauriko Aste Kulturalean, Gaztediaren Topaketa polifonikoetan (Burgosen), Udazken Zikloetan, Gabon Abesti Sariketan, O.H.O.ko Ikastetxe eta abarretan erakutsi izan du bere abesti zerrendaren ugaria.

SOINU BIDEA

Es un conjunto formado por 75 voces blancas, escogidas entre los alumnos del Colegio Basauri (Vizcaya). Inicióse esta actividad musical en 1974, sirviéndose de los métodos Orff y Ward.

Dispone en la actualidad de un variado repertorio, que ha interpretado en las Semanas Corales de Begoña, Semana Cultural de Basauri, Encuentros polifónicos de la Juventud (Burgos), Ciclos de Otoño, Concursos de Villancicos, Actuaciones en Centros de E.G.B., etc...

MARIAREN BIHOTZ DEUNEKO ESKOLANIA

Antonio Sierra bere zuzendariak sortarazia, azken hogeitun urteotan Donostian gehien nabarmendu izan den haur kantari taldea. Hori erakusten du bere zenbait saioetako Donostiar Orfeoia berekin eraman izanak. Hara nola Madrileko Teatro Errealean, Barcelonako Liceoan, Granadako Jaialdietan, eta abar. Burgosko Rafael Frühbecken, Fritz Riegerren eta abarren zuzendaritzaz ihardun izan du, orfeoiko eta beste zenbait koroetako zuzendariak tarteko direla.

Opera saioetan ere parte hartu izan du (Carmenen eta La Bohèmen), sari ugari irabazi du eta zortzi diska grabatu.

Eskolania honetako ikasle izandakoekin 90 abots mixtoez osatutako taldeak biziki lanean dihardu eta Donostiako Orfeoientzat hazitoki bikain bilakatzen da.

ESCOLANIA DEL CORAZON DE MARIA

Fundada por su actual director, Antonio Sierra, ha sido particularmente en estos 20 últimos años el coro infantil más destacado en San Sebastián. Así lo corrobora el hecho de que el Orfeón Donostiarra lo haya contratado en repetidas ocasiones para sus actuaciones en el Teatro Real de Madrid, en el Liceo de Barcelona, en los Festivales de Granada, etc... Ha sido dirigida por Rafael Frühbeck de Burgos, Fritz Rieger, etc., además de los directores del Orfeón Donostiarra y otros coros del país. Ha intervenido en representaciones de ópera (Carmen y La Bohème), ha ganado muchos premios y ha grabado ocho discos.

Con los exalumnos de esta Escolanía se ha formado un coro mixto de 90 voces, que tiene una gran actividad y que es una auténtica cantera del Orfeón Donostiarra.

ITSAS SOINUA KOROA

Lekeitioko Ikastolan osatu zuen Joseba Saenz Ortuondok 1972an. Lehen saioak herri mailan egin zituen, eta "Pueri Cantores" deritzan Federakunde Internazionalako kide egin zen bere Iruñeako, Toledoko, Erromako... Kongresuetan parte hartzen du.

Euskal Herrian Bizkaiko Aste Kulturaleran parte hartu izan du, Basauriko Alardean, Gasteizen, Donostian, Bergaran ihardun.

1978an koroaren zuzendaritzaz Gorka Sierra arduratu zen taldearen egitura berrituz, eta kantagai zabal eta aberatsagoa landuz, zeinaren bidez kontratu garrantzitsuak lortu bait ditu. Bere emanaldi aipagarrienetarikook, Barcelonan Palau de la Música Catalana delakoan, Tourseko Koru Jaialdi Internazionaleran, Ros Marbá eta Orkestra Nazionalarekin.

Antzoki Errealean, eginikoak dira. Horretaz gain Frantzian, Italian eta Belgikan zehar eginiko ibilaldiak.

ITSAS SOINUA KOROA

Fue fundado por Joseba Sáenz Ortuondo en 1972, dentro de la Ikastola de Lequeitio. Tras las primeras intervenciones de ámbito local, se inscribió en la Federación Internacional de "Pueri Cantores", participando en sus Congresos de Toledo, Pamplona, Roma, etc...

En el país ha intervenido en la Semana Coral Vizcaína, Alarde de Basauri, Vitoria, San Sebastián, Vergara, etc...

En 1978 se hizo cargo del coro Gorka Sierra, reformando su estructura de grupo e incorporando al coro un importante repertorio musical, que le ha supuesto importantes contratos. Sus más destacadas actuaciones en estos últimos años pueden ser las del Palau de la Música Catalana en Barcelona, Festival Internacional de Canto Coral en Tours, Teatro Real de Madrid con la Orquesta Nacional y Ros Marbá, además de algunas giras por Francia, Italia y Bélgica.

ZIZUR TTIPIKIKO (NAFARROAN) SAN FERMIN IKASTOLAKO KOROA

Fermin Iriarte, bere zuzendariak, sortu zuen 1977an.

Bere berrogeita hamar abotsek bai solfeo bai musika sailean goitik jotzen dute, eta hain entsaio ugari egiten dutela, kantagai ugariren jabe den abestalde izatera iritsi da, bai gregorianoz bai estilo guztietako musikan.

Emanaldi ugari eskaini izan du Nafarroan zehar, eta lehen saria irabazi izan du Iruñean parte hartu izan duen sariketetan (1978 eta 1981an) eta baita Berainen ere 1981an.

Bilbon, Baionan, Laburdin eta Zuberoan ere ihardun izan du.

Aipatu ere aipatzekoa da 1980ko Eguberritan Erroman eskaini zuen emanaldia.

Aurten, 1982an, Haur Kantarien Kongresu XXI. Internazionala ospakizunarekin batera bi kontzertu eskainiko ditu Bruselasen uztailen.

Disko ttipia, eta bestea luzea, grabaturik dauzka.

El coro de la Ikastola San Fermín, de Cizur Menor (Navarra), fue fundado por su actual director, Fermín Iriarte, en 1977.

Entre sus 50 componentes hay un elevado nivel de solfeo y preparación musical, lo que unido a la frecuencia de ensayos, ha creado en el coro un amplio repertorio de gregoriano y música de todos los estilos.

Son muy numerosas sus actuaciones por toda Navarra, destacando los primeros premios conseguidos en concursos a los que se ha presentado en Pamplona (1978 y 1981) y Beriaín (1981).

Ha actuado además en Bilbao, Bayona, Lapurdi y Zuberoa.

Conviene destacar su actuación en la Navidad de 1980 en Roma.

Para este año de 1982 tiene programados dos conciertos en Bruselas, con motivo del XXI Congreso Internacional de Pueri Cantores, que se celebrará en el mes de julio.

Tiene grabado un disco de corta duración y otro de larga duración.

IRUÑEAKO "LOYOLA" ESKOLANIA

Gaurregun bere zuzendari den Xabier Saguesek sortu zuen 1970an. Berrogeita hamabost ahotsek osatzen dute, eta badira beste ehun eta hirurogei eskolarian sartzeko solfeoa eta abesten ikasten ari direnak Holandan, Parisen, Versallesen, Chartresen, Erroman, Lisboan, Oporton, Coimbran eta abestu izan dute. Frantses Telebisioak 1979an Normandian grabaturiko "Eguberri argian" programan parte hartu zuten.

Espainako hiriburu zenbaitetan ere ihardun izan dute.

Bataz beste hogeitamar saio egiten dituzte urtean zehar. Disko zenbait ere grabatu dute eta musika sariketetan bost lehen sari irabazi.

E
D

Fu
ac
Cl
vo
ap
so
de
Es
Hc
Ch
Or
pa
tel
lu;
Te
Nc
Ha
ca
Su
an
Ha
ha
pr
ce

ESCOLANIA "LOYOLA" DE PAMPLONA

Fue fundada en 1970 por su actual director, Javier Sagüés. Cuenta con un grupo de 55 voces y una reserva de 160 aprendices, que estudian solfeo y emisión de voz, antes de hacer su ingreso en la Escolanía. Han actuado en Holanda, París, Versalles, Chartres, Roma, Lisboa, Oporto, Coimbra. Tomaron parte en la grabación del film televisivo "Navidad en la luz", realizado por la Televisión Francesa en Normandía en 1979.

Han actuado en varias capitales de España.

Su promedio de conciertos anuales suma la cifra de 30. Han grabado varios discos y han alcanzado cinco primeros premios en distintos certámenes musicales.

ORERETA IKASTOLA KOROA

Jose Luis Ansorenaren eraginez 1973an Errenteriako Orereta Ikastolako haurrak kantu koralean hezitzeari ekin zitzaion. Sei eta hamabost urte tarteko berrehunen bat haur kantari berezi zituen. Koroaren saioretan gutxiagoek ihardun ohi dute. Zenbait sariketetan, jaialdietan, eta abarretan, haur kantariak heziz doaz, gero Oiñarri Gazteen Koroan kantatuz jarraitzen dutelarik. Andra Mari Koralak hementxen du bere harrobia.

Azken urteotan Jon Bagues da Orereta eta Oiñarri koroko zuzendari.

CORO IKASTOLA ORERETA

En 1973 se inició por iniciativa de José Luis Ansorena una labor de educación en el canto coral entre alumnos de la Ikastola Orereta de Rentería. Se hizo una selección de unos 200 cantores de edades comprendidas entre los 6 y 15 años. Las intervenciones del coro se llevan a cabo con un grupo más reducido. Diversos festivales, concursos, etc... han sido las oportunidades de maduración de estos cantores, que luego desembocan en el Coro Juvenil Oiñarri, cantera de la Coral Andra Mari.

En estos últimos años es director titular de ambos coros, Orereta y Oiñarri, Jon Bagüés.

Maiatzak 20,
osteguna,
arratsaldeko 8etan.

Aita Kaputxinoen Elizan.

Jueves, 20 de
mayo, 20 horas.

Iglesia de PP. Capuchinos.

KORAL EGVNA DIA CORAL

Stabat Mater Dolorosa	<i>Joaquín Tadeo de Murguía</i>
In te, Domine, speravi	<i>Joaquín Tadeo de Murguía</i>
O sacrum convivium	<i>P. Tomás de Elduayen</i>
In medio Ecclesiae	<i>P. Tomás de Elduayen</i>
In transitu S. P. N. Francisci	<i>P. Tomás de Elduayen</i>
Primavera	<i>José M^o Beobide</i>
Villanesca	<i>José M^o Beobide</i>
Txoritua, nurat ua? - Errota berriko	<i>José M^o Beobide</i>

II

Nana de la cebolla

Manuel Seco de Arpe

Iru eusko kanta:

- a) Adiyó
 - b) Guadalupeko salbea
 - c) Nere etxea
- Luis Urteaga*

Bordon dantza

Luis Urteaga

Errenteriako Oiñarri Koroa. Zuzendaria: Jon Bagüés.

Ondarroa Abesbatza. Zuzendaria: Joseba Sáenz Ortuondo.

Donostiako "San Ignacio de Loyola Korala". Zuzendaria: José Antonio Sáinz Alfaro.

Errenteriako Andra Mari Korala. Zuzendaria: José Luis Ansorena.

Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.





ONDARROA ABESBATZA

Gaurregun bere zuzendaria den Joseba Saenz Ortuondok 1980an sortarazia, gizon-emakumezko 80 abotsez osaturikoa.

Bizkaiko Korál Asteetan parte hartu izan du 1981 eta 1982an.

Madriko Udalak deiturik bertako Banda Munizipalarekin batera San Isidro jaletan ihardun zuen. Ejea de los Caballerosko XIII jaialdian parte hartu zuen eta baita Gernika eta Lumo elkartu zireneko ehunurteburuaren ospakizunean ere. Ondarrun ere ekin izan dio 1980, 81 eta 82ko zenbait ospakizunetan.

Aurten diska luze bat grabatu du.

ONDARROA ABESBATZA

Fundado en 1980 por su actual director Joseba Sáenz Ortuondo, como coro mixto de 80 voces.

Ha participado en las Semanas Corales Vizcaínas de 1981 y 1982.

Ha actuado en las fiestas de San Isidro de Madrid, invitado por su Ayuntamiento, conjuntamente con la Banda Municipal de la Villa.

Participó en el XIII Festival de Ejea de los Caballeros, así como en un concierto coral, con motivo del I Centenario de la unión de Gernika y Lumo. En diversas ocasiones ha actuado en Ondárroa en los años 1980, 81 y 82.

Durante el presente año ha grabado un disco de larga duración.

DONOSTIAKO SAN INAZIO KORALA

Pablo Garaioa zenak osatu zuen 1971an. Donostiako San Inazio ikastetxeko ikasle ez osaturik dago gehienbat. Gaurregun Jose Antonio Sainz Alfarak zuzentzen du.

Berbizkunde gaiak eta folklorea kantatzen du gehienbat, eta baita XIX eta XX mendeko korál lanak ere.

Aipatzekoak dira, irabaziak dituen beste sariren artean, Ejea de los Caballerosen 1977, 1978 eta 1981an irabazitako lehen sariak, baita hemen bertan 1979 eta 1980an irabazitako bigarrena ere.

Tolosako sariketan sari bereziak irabazi zituen polifoniaman (1978an), eta folklorea (1980an).

Lehenago, 1979an polifoniaman lehen saria eta folklorea hirugarrena irabazi zituen.

San Vicente de la Barquerako itsas abesti sariketan bigarren saria irabazi zuen.

Cuenca hirian 1980an eta 1981an eman ziren Gazteen Polifoniako Topaketa Nazionalerako joateko aukeratu zuen Kultur Ministeritzak.

CORAL SAN IGNACIO, DE SAN SEBASTIAN

Fue fundada en 1971 por el malogrado Don Pablo Garayoa. Se compone en su mayor parte por alumnos del colegio San Ignacio, de San Sebastián. En la actualidad está dirigida por José Antonio Sáinz Alfaro.

La parte principal de su repertorio la constituyen obras de música renacentista y folklore, interpretando también obras corales de los siglos XIX y XX. Este coro ha realizado giras por parte del estado español y por algunos países extranjeros como, Italia, Inglaterra, Alemania...

Entre los premios concedidos a esta coral destacan:

1^{er} premio en el certamen de la canción Aragonesa de Ejea de los Caballeros, en los años 1977, 1978, 1981, así como el 2^o premio en el mismo certamen en los años 1979 y 1980.

Respecto al certamen de Tolosa, se les concedió premios especiales, tanto en la modalidad de polifonía (1978), como en folklore (1980). Se les otorgó además el 1^{er} premio en polifonía y el 3^o en folklore en el año 1979.

2^o premio en el certamen de la canción marinera de San Vicente de la Barquera.

Seleccionado por el Ministerio de Cultura, para participar en los encuentros Nacionales de Polifonía Juvenil, en los años 1980 y 1981, celebrados en la ciudad de Cuenca.

ERRENTERIAKO OIÑARRI KOROA

Hezketa lanak, abesti sailetan Errenteri'ko ikastolan egin izan den hezketa lanak bere emaitza eskaini du, eta bertan, Andra Mari Koralaren arduradunei eskerrak, neskailen abestaldeak sortu da Oiñarri Koroa. Bere deiturak erakusten digunez, ikasle hauek izango dira Andra Mari Koralaren geroaren oinarri eta eusgarri. Oiñarri Koroak bere aurkezpena egin zuen MUSIKASTE 76 saioan. 1978-1979 ikasturtean, neska-mutuez osaturiko elkarte musikala bilakatu da eta horrela azaldu zen MUSIKASTE 79 saioan.

La tarea de educación para el canto coral, que se viene realizando en la Ikastola Orereta de Rentería, culminó con la creación del Coro femenino Oiñarri, por iniciativa de los directivos de la Coral Andra Mari. De esta manera las alumnas más maduras constituyeron un coro juvenil que vino a ser la base y cimiento (oiñarri) de la Coral Andra Mari.

El Coro Oiñarri hizo su presentación en MUSIKASTE 76, pero en MUSIKASTE 79 se presentó como agrupación mixta. En la actualidad tiene ya en su historial varios conciertos e intervenciones en importantes escenarios del país.

Maiatzak 21,
ostirala,
arratsaldeko 8etan.

Aita Kaputxinoen Elizan.

Viernes, 21 de
mayo, 20 horas.

Iglesia de PP. Capuchinos.

EVSKO
KLASIKOAK
CLÁSICOS
VASCOS

Andantino con variaciones *Joaquín Tadeo de Murguía*
(Piano)

Sonata a 4 manos *Joaquín Tadeo de Murguía*
(Piano)

Pajarillo amoroso (bolero) *Joaquín Tadeo de Murguía*

Dile, niña, a tus ojos
(Bolero a 2) *Joaquín Tadeo de Murguía*

Fandango-Bolero con variaciones *Tomás Garbizu*

Iantzi *Tomás Garbizu*

Bertsu berriak *Tomás Garbizu*

Baztán *Tomás Garbizu*

Soprano: M.^a Luisa Busselo.

Soprano: Maite Arruabarrena.

Pianista: Javier González Sarmiento.

Pianista: Lutxi Manzidor.

Donostiako Txistulari Udaltaidea.

II

Preludio y gavota *José M.^a Beobide*

Agurtzane *Juan José Iruretagoyena*

Erromeria *José Luis Iturralde*

Quinteto de viento de profesores del
Conservatorio Municipal de San Sebastián.

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.



JAVIER GONZALEZ SARMIENTO

Donostian jaio zen, 1959an.

Bere musika istudioak 13 urte zituela hasi zituen Virginia Martínez del Castillo irakasle zuela.

Aipamen akademiko bereziak irabazi zituen eta piano eta kamara musika sariketa zenbaitetan saririk irabazi zuen.

Piano karrera bukatzerakoan Lehen Saria eman zioten eta Ohorezko Aipamena. Gogoan hartzekoa da ordura arte gisa honetako aipamena Pedro Korostola biolontxeilari haundiari bakarrik eman zitzaiola.

Armonia karrera amaitu eta gero Konposaketa ikasteari ekin zion Eskudero Maisua gidari zuela. Ondoren, Piano saileko istudio bereziak Hendaian egiten ditu Madame Douéren gidaritzapean.

Gaurregun Deretxoko bostgarren maila ikasten dihardu Donostiako Fakultatean.

Norantz doan ikusirik eta hezkuntza akademiko onaren jabe dela gogoan izanik, Euskal Herriak musika bizitzan duen esperantzarik tinkoenetakoa dela esan daiteke.

JAVIER GONZALEZ SARMIENTO

Nació en San Sebastián en 1959.

Comenzó su formación musical a los 13 años con la profesora Virginia Martínez del Castillo.

Obtuvo diversas distinciones académicas y fue premiado en varios concursos de piano y música de cámara.

Al término de su carrera de piano fue galardonado con el Primer Premio y una Mención Honorífica, distinción que anteriormente sólo había alcanzado el gran violoncellista Pedro Corostola.

Terminada la carrera de Armonía, estudió Composición bajo la dirección del Maestro Escudero y prosigue los estudios de virtuosismo de Piano en Hendaia con la profesora Madame Doué.

En la actualidad estudia el 5º curso de Derecho en la Facultad de San Sebastián.

Por su dirección y excelente formación académica está considerado como una de las más firmes promesas de la vida musical en el País Vasco.

DONOSTIAKO MUSIKA
GOI
KONTSERBATORIOKO
HAIZE KINTETOA

QUINTETO DE VIENTO
DEL CONSERVATORIO
SUPERIOR DE MUSICA
DE SAN SEBASTIAN

Este conjunto, que hizo su presentación pública el 21 de noviembre de 1981 en el Ayuntamiento de Donostia, con motivo de la festividad de Santa Cecilia, está integrado por catedráticos del Conservatorio, que amplían sus tareas pedagógicas al campo de los conciertos y recitales. Por tanto, aunque el conjunto es nuevo, hay que añadir que sus componentes son de nivel artístico reconocido y rubricado en muchas ocasiones.

Flauta: Teodoro Martínez de Lecea.

Oboe: Alfredo Rodríguez Ereño.

Clarinete: Angel Maeztu Garcés.

Fagot: José Juan Llopis Durá.

Trompa: Juan Manuel Gómez de Edeta.

Santa Zeziliaren jai ospakizuna zela eta aurkeztu zen talde hau 1981ko azaroaren 21ean, Donostiako Udaletxean. Kontserbatorioko katedratikoez osatzen dute eta irakaskuntzaz gain beren lana kontzertu eta musika emanaldietara zabaltzen dute. Oraindik taldea berria den arren, osatzen dutenak goi mail artistikoa dutela ezin ahaztuzkoa da, sarritan erakutsi izan dutena.

Maiatzak 22,
larunbata,
arratsaldeko
10etan.

Aita Kaputxinoen Elizan.

Sábado, 22 de
mayo, 22 horas.

Iglesia de PP. Capuchinos.

AMAIERA
KONTZERTVA
CONCIERTO DE
CLAVSVRA

I
Concierto de órgano obligado
con orquesta de cuerda (1790) *J. Tadeo de Murguía*

Andante con variaciones, para
clarinete, cuerda y
órgano (1797) *J. Tadeo de Murguía*

Sepulto Domino, motete a 4 con flautas
y violoncello (1791) *J. Tadeo de Murguía*

Et egressus est, 2.^a lamentación de miércoles
santo a solo *J. Tadeo de Murguía*

II

All'Aurora, duetto para tenor, bajo
y orquesta *Juan Crisóstomo Arriaga*

Saint Nicolas (Leyenda) *P. Donostia*

Tríptico espiritual:

a) Liberame, Domine

b) Regina coeli

c) Hodie Christus natus est *P. Tomás de Elduayen*

Juan Miguel Echarri, tenor

José M. Arbelaiz, barítono

Coro de Cámara de la Coral Andra Mari, de Rentería

Director: José Luis Ansorena

Orquesta Sinfónica de MUSIKASTE

Director: Tomás Aragüés Bernard

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean.
Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa.





ANDRA MARI KORALAREN KONDAIRA

Errenteriako Andra Mari Korala 1966. urtean, gaur egun ere zuzendaria den Jose Luis Ansorena Aitak sortua izan zen. Jende aurrean beren lehen saioa 1967go Azaroan egin zuten.

Hona hemen orain arteko saiorik nagusienak:

Gasteizen ospaturiko "Arabar Abesti" Lehen Jaialdian aurkezten da, hainbat probintziako 14 koralean artean Hirugarren Saria lortzen du. Torreveija-ko "Habanera eta Polifonia" XIV Txapelketa Nazionalera doa Polifonia atalean Hirugarren Saria jasoaz.

Torreveija-ko "Habanera eta Polifonia" XV Txapelketa Nazionalen parte hartzen du, Polifonia Lehen Saria ateratzen duelarik. Habaneratan ere Lehen Saria lortzen du, itsasoko edertasuna goratuz eginiko abestirik onenari saria (bere Zuzendariak sortua). Baitere hoberen abesturiko folkloriko kantuen saria.

Arezzo-ko (Italia) Txapelketa Internazionalen, munduko Korala hobereenen artean parte hartzen du.

Beljikan, Flandes aldean bi bira egiten ditu, Flandesko Ministerioko Kultura Batzordeak eraturiko zenbait musikalditan.

Mozart-en Requiem Meza abesten du Iruñeko Orfeoiakin batera, Bilboko Orkestra Sinfonikak laguntzen diela. Zuzendari bezela Pedro Pirfano. Donostiako Koruko Andra Mariaren Eleizako J. S. Bach-en V Jaialdian jarduten du, J. S. Bach-en Gran Magnificat abestuz.

Errenterian, eta urtero, MUSIKASTE antolatzen du euskal eresgile eta abeslariak ezagutzearren.

Beste lanak: Euskal Ereslarien Bilduma "ERESBIL". Egin nahi dena ez da Artxiboa bakarrik prestatzea. Euskal musikagileen lanen baten bila jo nahi duenak, edo grabaketaren bat entzun nahi duenak, edo musikaz idatzi diren lanak irakurri nahi baldin baditu bertara jo dezake. Dagonekoz, Euskalerriko Artxiborik inportanteena dugu, oraindik biltzeko asko daukagun arren, 15.000 lan inguru bilduak daude, 5.000 baten musikagileen lanak.

Andra Mari Korala, Gipuzkoa eta inguruko probintzietan herririk berezietan eskaini du saio ugari, ondoren on askorekin. Azken bi urte hauetan 40 musikaldirik gora eman ditu, egitarau desberdinekin. Egitarau hauetan sartzen dira XVI gizaldiko eta gaur egungo Polifonia, Eleiz eresiak, ludi guztiko folklorea eta batez ere euskalduna.

HISTORIAL DE LA CORAL ANDRA MARI

La Coral ANDRA MARI de Rentería, fue fundada por su actual director, P. JOSE LUIS ANSORENA, en el año 1966.

Ha participado con gran éxito en diversas competiciones musicales, habiendo obtenido Medalla de Bronce en el Festival de la Canción Alavesa de Vitoria y en el Concurso de Polifonía de Torreveja en el año 1968. Medalla de Oro en el Concurso de Habaneras y Polifonía de Torreveja en el año 1969. Medalla de Oro en el Certamen Nacional de Habaneras y Polifonía de Torreveja en el año 1974.

Ha intervenido asimismo en Arezzo (Italia), y en el Festival de Música de Gava (Barcelona). Ha realizado giras artísticas por Suiza y Bélgica.

Ha intervenido en conciertos con la Orquesta Sinfónica del Conservatorio de San Sebastián bajo la Dirección del maestro García Asensio, con la Orquesta de Bilbao bajo la dirección del maestro Pirfano y con la Orquesta de Santa Cecilia de Pamplona bajo la dirección del maestro Bello Portu.

Ha grabado tres discos de música vasca y desde el año 1973 organiza la Semana Musical en Rentería MUSIKASTE, que tiene por objeto dar a conocer tanto compositores vascos antiguos y modernos como intérpretes vascos.

Cabe destacar otra realización importante como es la creación del Archivo de Compositores Vascos EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA (ERESBIL) donde se puede encontrar toda clase de partituras de todos los compositores vascos de todos los tiempos, y que está a disposición de toda la afición musical.

La Coral ANDRA MARI ha actuado en los principales escenarios del País Vasco y durante los últimos años ha ofrecido conciertos con los más variados repertorios, que incluye Polifonía profana del siglo XVI, Polifonía profana contemporánea, música religiosa y estrictamente litúrgica, folklore universal y particular cultivo del folklore vasco.

TOMAS ARAGUES BERNARD

Teruelgo Albalate del Arzobispon jaioa 1935ko urriaren 19an. Lau urte zituela Euskal Herrira etorri zen eta geroztik bertan bizi, Salamancan igaro urte batzuk izan ezik, bere aita Tomas Aragues Bayartek, oposizioz, Barakaldoko Banda Munizipaleko zuzendaritza irabazi zuen eta baita Bilboko Kontserbatorioan Armonia eta Konposaketa katedra ere.

Armonia eta Konposaketa estudioak Bilboko Kontserbatorioan amaitu zituen 1958an goren mailako kalifikazioak irabaziz.

Gregoriano Kantuan Lizentziatu egiten da 1957an Madrilera Musika Sakra Goi Eskolan.

Konposaketa sailean bere jakintza osatzu doa 1961an ikasientzat antolatzen den "Música en Compostela" eta Sienako (Italian) "Academia Musicale Chigiana" Petrassi maisuaren zuzendaritzapean.

Donostiako Kontserbatorioan Solfeo eta Musikaren Teoria saileko katedra irabazten du oposizioz.

Hasi 1974an eta 1979 bitarte Donostiako Talde Barrokoaren Zuzendari-sortzaile bezala ikusten dugu.

1977an, CORO EASOk zuzendari izendatzen dute eta horretan jarraitzen du gaurregun.

Oraindik orain Goi Maileko ikastetxe izendatu berria duten Donostiako Kontserbatorioko Zuzendari izendatzen dute.

1980-81 ikasturtean irakasle talde batek "Pro Arte" Orkestra osatzen dute Kontserbatorioan, horrela ikasleek kuerda eta haize instrumentuak hobeto mendera ditzaten, atrila erabiliz, zuzendaritza artistikoa Aragues irakaslearen eskutan dagoelarik.

Lan sinfoniko, eta koraletarako, askoren egile da.

Sari ugari irabazi du konposaketaren arloan.

Nace en Albalate del Arzobispo (Teruel) el 19 de octubre de 1935. A los 4 años pasa a residir de una manera continua, salvo unos años de estancia en Salamanca, en el País Vasco, al ganar su padre, Tomás Aragüés Bayarte, mediante oposición, la plaza de Director de la Banda Municipal de Baracaldo y la cátedra de Armonía y Composición del Conservatorio de Bilbao.

En el año 1958 culmina con las más altas calificaciones sus estudios de Armonía y Composición en el Conservatorio de Bilbao.

Licenciado en Canto Gregoriano por la Escuela Superior de Música Sacra de Madrid en 1957.

Sigue cursos de Perfeccionamiento en Composición para postgraduados en "Música en Compostela" (1961) y en la "Academia Musicale Chigiana" de Siena (Italia), bajo la dirección del maestro Petrassi.

Desde 1973 es, por oposición, Catedrático de Solfeo y Teoría de la Música del Conservatorio de San Sebastián.

Durante el período 1974-1979 es Director-fundador del Conjunto Barroco de San Sebastián.

Desde 1977 es director del CORO EASO, cargo en el que continúa en la actualidad.

En enero de 1981 es nombrado Director del Conservatorio donostiarra, recientemente reconocido de Grado Superior.

Al comienzo del curso 1980-81 se organiza en el Conservatorio la Orquesta "Pro Arte" por iniciativa de un grupo de profesores del Centro y para facilitar a los alumnos de las clases de instrumentos de cuerda y viento la práctica de atril, corriendo la dirección artística a cargo del profesor Aragüés.

Es autor de buen número de obras sinfónicas y corales.

Ha obtenido diversos y numerosos premios de composición.